




Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

“GAZTE ETORKINAK EUSKARARA HURRERATU” EGITASMOA – 2009



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

- 1.1.- ESTATISTIKAK.
- 1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.
- 1.3.- ESKOLA KONTSEILUAREN BATZARRAK

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

- 3.1.- GAZTE ETORKINEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA
- 3.1.- IKASTARO BEREZIAK
- 3.2.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2008” AZPIEGITASMOA
- 3.3.- ERAGILEAK
- 3.4.- BALIABIDEAK
- 3.5.- KRONOGRAMA

4.- BALORAZIO KUALITATIBOA ETA KUANTITATIBOA


5.- AURREKONTUA

ERANSKINA:

- I. ERANSKINA: Diagnostikoa eta 2009ko ekintza plana



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoaren lehenengo pausuak 2006rako eratzerakoan eskuetan genituen estatistikei erreparatuz, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean, Euskal Herri osoan gertatu bezala, etorkinen pilaketa azken lau/bost urteetako fenomeno dela.

Etorkinak, guztira, 1.276 izan dira 2008ko erroldan (biztanleriaren %7,8 (2007an %6,74 zen portzentajea)) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentaia % 70,08 dela ateratzen zaigu:


- 18 urtetik beherakoen portzentaia % 14,78a da.
- 18-29 urte bitartekoena % 27,83a
- 30-39 urte bitartekoena % 27,47a

Beraz, eskoletara bideratzeko edo lanean aritzeko adinekoak guztiak eta, ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen den adin-tartea izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Beraz, etorkin helduei dagokienean, gure eginbeharra da euskara ikasteko motibatzea eta euren pertzeptzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturarazteko.

Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D eredua nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten ausartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartean integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jarduerak berezi batzuk.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.1.- ESTATISTIKAK


Ikasle etorkinak Busturialdeko irakaskuntza zentroetan (haurreskolak kanpo):

Ikastetxeak	Ikaslekoa 2005/2006	Etorkinak 2005/2006	Ikaslekoa 2006/2007	Etorkinak 2006/2007	Ikaslekoa 2007/2008	Etorkinak 2007/2008	Ikaslekoa 2008/2009	Etorkinak 2008/2009
CEP Allende	642	21 (3,3%)	664	31 (4,7%)	682	37 (5,4%)	696	35 (5,1%)
CEP Barrutia	175	8 (4,6%)	187	8 (4,4%)	210	6 (2,8%)	235	15 (6,3%)
IES Barrutialde	240	2 (0,8%)	230	5 (2,2%)	214	7 (3,2%)	216	9 (4,1%)
IES Gernika	713	20 (2,8%)	722	21 (2,9%)	717	20 (2,7%)	717	14 (1,9%)
La Merced	296	78 (26,4%)	294	62 (21,1%)	303	106 (34,9%)	307	113 (36,8%)
San Fidel	651	24 (3,7%)	682	29 (4,3%)	672	36 (5,3%)	676	44 (6,5%)
Seber Altube	543	18 (3,3%)	556	20 (3,6%)	572	16 (2,7%)	582	15 (2,5%)
Montorre (Arteg)	44	1 (2,3%)	42	3 (7,1%)	43	2 (4,6%)	43	2 (4,6%)
Mundaka	119	3 (2,5%)	115	3 (2,5%)	122	13 (10%)	121	10 (8,2%)
Ucelay (Busturi)	76	2 (2,6%)	90	3 (3,3%)	91	1 (1%)	101	3 (2,9%)
Urretxindorra	43	1 (2,3%)	48	1 (2,1%)	54	1 (1,8%)	62	1 (1,6%)
Publikoak	2.052	58 (2,8%)	2.098	75 (3,5%)	2.133	87 (4%)	2.191	89 (4%)
Kontzertatuak	1.490	120 (8%)	1.532	111 (7,2%)	1.547	158 (10%)	1.565	172 (10%)
Orokorra/Total	3.542	178 (5%)	3.630	186 (5,1%)	3.680	245 (6,6%)	3.756	261 (7%)

Etorkinen %65,9 zentro kontzertatuetan matrikulatuta eta %37,1 publikoetan (Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)).



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria


UNESCO Saria
2002 - 2003

Ikasle etorkinak ereduak Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan (2006-2007 ikasturtea):

	B EREDUA	D EREDUA	OROKORRAK
HAURRESKOLA/INFANTIL (3-6)		37	37
LEHEN HEZKUNTZA/PRIMARIA	18	63	81
DBH/SECUNDARIA	29	34	63
BATXILERGOA	1	3	4
LANBIDE/FP (Erdi maila)	0	0	0
LANBIDE/FP (Goiko maila)	1		1
OROKORRAK	49	137	186



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Gure udalerriari dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:


- **Berezitasuna.-** Beste udalerri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, oster, zentro kontzertatuetan dago pilaketa.
- **Arriskua.-** Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harritzekoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela bi urte hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integrazioarako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak barru. Gorako joera moteldu egin da 2008-2009 ikasturtean, 2007-2008koarekin alderatuz, azken ikasturte honetan ere zerbait areagotu den arren etorkinen portzentajea Mertzede ikastetxean.
- **Indargunea.-** Etorkinak matrikulatzen diren erduei erreparatur, 186tik 137 (%73,75) ikasle D ereduan daude eta haurreskolen kasuan, guztiak D ereduan.

Atzerriko biztanleriaren bilakaera eskualdean, 2007-2008

2007ko URTARRILAREN 1ean				2008ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Al daketa
ARRATZU	353	6	1,6%	359	10	2,7%	+4
BUSTURIA	1.737	44	2,5%	1.732	53	3%	+9
EA (*)	899	18	2%	906	19	2%	+1
ELANTXOBE	447	7	1,5%	440	9	2%	+2
ERRIGOITI	511	10	1,9%	522	16	3%	+6
FORUA	956	46	4,8%	998	54	5,4%	+8
ARTEAGA	900	42	4,6%	898	40	4,4%	-2
GERNIKA	16.169	1.100	6,8%	16.290	1.276	7,8%	+176
IBARRANGELU	596	12	2%	613	18	2,9%	+6




Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

KORTEZUBI	406	9	2,2%	416	9	2,1%	0
MENDATA	374	6	1,6%	375	9	2,4%	+3
MORGA	396	7	1,7%	400	11	2,7%	+4
MUNDAKA	1.860	75	4%	1.881	99	5,2%	+24
MURUETA	305	11	3,6%	311	11	3,5%	0
MUXIKA	1.395	17	1,2%	1.475	29	1,9%	+12
NABARNIZ *				230	2	0,8%	-
SUKARRIETA	353	8	2,2%	345	11	3,1%	+3
GUZTIRA	27.657	1.418	5,1%	28.173	1.676	5,9%	+258

*Iturria: Biztanleen Udal-errola. *Nabarniz 2007.ko amaieran sartu zen Mankomunitatera.*




Goiko estatistiketatik hurrengo ondorioak ateratzen diogu:

- 1) Busturialdeko Udal Elkargoko udalerrietan dauden atzeritar guztien **%76a biltzen** da Gernika-Lumon. **Gernika-Lumoko biztanleen %7,8** beste herrialde batzuetatik etorria da.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

- 2) 1996.urtetik 2008.urteko urtarrila arte Elkargoko udalerrietan erroldatutako atzerritar kopurua **hamar bider handitu da, 164tik 1.676ra iritsi da.**
- 3) Inmigrazio berriaren aurrean gaude: **etorkinen %68a azkeneko hiru urteetan heldu da (%31 2007an).**
- 4) Atzerriko biztanleen **%48,3 Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorri da.** Euren nazionalitateari erreparatuz, hauek dira datuak: **errumaniarra (719 pertsona), boliviarra (99), argentinatarra (94), ekuadortarra (82) ta brasildarra (60). 2007.an gehien gehitu diren nazionalitateak: errumaniarra (151 pertsona gehiago); brasildarra (22 gehiago) ta boliviarra (16 gehiago). Europako Batasunetik etorri direnen %84 (719) errumaniarrak dira.**
- 5) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien **%48** dira.
- 6) Atzerriko biztanleen **%50a** gaztea da, 18-39 urte bitartekoa, eta **%16 adin txikikoa.**
- 7) 2004tik 2008ra bitartean etorkinen kopurua bikoiztu egin da; 2004 urtean 582 baziren, 2008an **atzerritarrak 1.276 dira (% 7,83).**
- 8) Ondorio nagusia: Atzerritarrak gero eta gehiago dira eta bertokoak, oster, gero eta gutxiago. Bertoko biztanleria gutxitu egin da eta etorkinek galera hori bete eta, gainera, biztanleria gehitzea ekarri dute.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK

Eztabaidarako foroetan parte hartu genuen Euskara Zerbitzutik eta 2005ean eratuko zen Busturialdeko Inmigrazio Planari ekarpenak egiteko orduan hauexek aurkeztu ziren:

14. orrialdean (ONARTU EGIN ZEN)

“Premiak” izenburua daukan atalean, hurrengo hauxe gehitzea:

“Hezkuntzako datuak kontuan hartuta, irakaskuntzan getorik sortu ez dadin eta ikasle etorkinen pilatzea ekiditzeko, behar-beharrezkoa da matrikulaziorako protokolo zehatz bat adostea Gernika-Lumoko udalerriko zentruen artean, Hezkuntza sailak dituen irizpideekin bat. Hori guztia, etorkin ume eta gazteak gizarteratzeko funtsezko oinarriak finkatzeko”.

17. orrialdean (EZ ZEN ONARTU)

“Gizarte eragileen balorazioak” atalean hauxe gehitzea:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzua, bat dator hezkuntzari dagokionean egindako diagnostikoarekin eta orain arteko jokabidearen ondorioz sorturiko arazoak ekiditzea ezinbestekoa deritzo. Euskara Zerbitzuaren ustez, gertatu den etorkinen pilaketa ikasleak gizarteratzeko oztopo handia izateaz gain, hizkuntza aldetik integrazioa lortzeko ere beste horrenbeste, euskararen kalterako.


Euskara Biziberritzeko Gernika-Lumoko Planean, etorkinekiko ekintza zehatzak aintzat hartuta daude bi esparrutan: euskalduntze-alfabetatzea (euskara ikasteko dirulaguntzak edo doaneko aukera) eta irakaskuntza (normalkuntza planen bitartez eskoletan etorkinekiko planteatzen diren egitasmoetarako dirulaguntza). Eskualdeko udalen inplikazioa ere beharko litzateke arlo honetan.”

27. orrialdean (EZ ZEN ONARTU)

4.1.2. “Bertakotze kontzeptua” atalaren hirugarren paragrafoaren jarraian hauxe gehitu:



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

“Bertakotze prozesua osatua izan dadin, Inmigrazio plana erkatu egin behar da gizartean abian dauden beste Plangintzekin, bata bestearen oztopo izan beharrean osagai izan daitezen; esaterako, Euskara Biziberritzeko Plana.”

43. orrialdean (ONARTU EGIN ZEN)


6.4.2. Neurria.- Egokitzea:

Oraingoan, 2008an, II. Inmigrazio Plana eratzerakoan ere egin ditugu ekarpenak (gorritan), onartu diren zain gaudelarik:

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA				
Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.1. Eskualdean bizi diren etorkinen erroldatzea erraztea, errolda ezinbesteko tresna baita herriaren errealtatea ezagutzeko eta pertsona guztiek gizarte, osasun eta hezkuntzaren aldetik dauken zerbitzuak berdintasunez eskuratzen dituztela bermatzeko.	-Udalerriak -Inmigrazio Zerbitzua	GEHITU: Udaletako erroldatzea zerbitzuak	2008 2009 2010 2011	-Erroldako datuak dituzten urteko txostenak.
6.1.2. Tresnak ezartzea Elkargoko Udalek Europar Batasunetik kanpoko etorkinei jakinarazteko erroldako izenematea bi urterik behin berritu behar dutela.	-Udalerriak -Inmigrazio Zerbitzua	GEHITU: Udaletako erroldatzea zerbitzuak	2008 2009 2010 2011	-Iraungitzearen ziozko bajak dituzten urteko txostenak.
6.1.3. Harrera zuzena eta pertsonalizatua bermatzea Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoan eskualdera iritsi berri diren atzerritar guztiei. Harrera horretan, atzerritarren gai espezifikoak eta eskualdeko baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa emate-	-Gizarte Zerbitzuen Elkargoa.	GEHITU: - Udaletako Euskara Zerbitzuak - Berritzegunea	2008 2009 2010 2011	-Harrera egindako iritsi berri diren atzerritarren kopurua.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

ko eta beharrezko zerbitzuetara bideratuko dira.				
--	--	--	--	--

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.7. Etorkinak hartzeko baliabideei buruzko gidak eta bestelako informazio-materialak eguneratzea eta hobetzea.	-Inmigrazio Zerbitzua	GEHITU: Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua	2008 2009 2010 2011	-Prestatutako materialak.

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.14. Immigratio plana eskualdean dagoeneko abiarazita dauden beste plan batzuekin koordinatzen dela bermatzea.	-Inmigratio Zerbitzua		2008 2009 2010 2011	-Urteko txostenak

ZALANTZA: 6.1.14.- Beste Plan batzuekin koordinatzea esaten denean, beste Inmigratio Plan batzuekiko koordinazioaz esan nahi du ala bestelako Planekin?

Gure ustez, zehatzago esan beharko luke. Bestela 6.1.15 puntu bat sortuko genuke haxe aipatuz:


6.1.15. Eskualde edota udalerri mailan gizarte arlo desberdinetan (Euskara, aukera berdintasuna,...) abian dauden beste plan batzuekin koordinazioa lantzea eta burutzen dela bermatzea.	-Inmigratio Zerbitzua - Udalerrri bakoitzeko lan-saila		2008 2009 2010 2011	-Urteko txostenak
--	---	--	------------------------------	-------------------

6.3.-HEZKUNTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.3.4. Baterako jarduerak egitea	- Inmigratio		2008	- Buruturiko



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003


udaleko euskara zerbitzuekin, etorkinek euskara jakitea eta erabiltzea errazteko.	Zerbitzua - Udalen euskara zerbitzuak -Elkarteak		2009 2010 2011	egitarauak dituen urteko txostena.
---	--	--	----------------------	------------------------------------

6.3.4 puntuarekin lotuta dago, baina 6.3.4.(bis) puntua izan daitekeena proposatzen dugu:

6.3.4.(bis) Gernika-Lumoko udaleko Euskara Zerbitzuak Gernikako AEKekin elkarlanean burutzen ari den diagnostikoaren arabera, 12-24 urte bitarteko gazte etorkinak euskal mundura erakartzeko Plan Estrategikoa diseinatu	- Immigrazio Zerbitzua - Gernikako-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzua - Gernikako AEK	Etorkinen elkarteak	2008 2009 2010 2011	- Buruturiko egitarauak dituen urteko txostena.
--	--	---------------------	------------------------------	--



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.3.- ESKOLA KONTSEILUAREN BATZARRAK

Euskararen normalizazioari eta ereduen garapenari begira, etorkinen matrikulazioa kontuan hartzeko barietatea dugu. Horrek irakaskuntzan sortzen zuen arazoa bultzatuta eta Euskara Zerbitzua ere kezkatuta, 2005ean Udal Eskola Kontseilua bilakatu zen bilgune gai hori aztertzeko. Hona hemen ordutik izandako bilkurak.


- 2.005eko URRIAREN 6ko bilkura. Gaia.- 2005-2006 IKASTURTERAKO ETORKINEN MATRIKULAZIOAREN EMAITZAK AZTERTU, ONDORIOAK ATERA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA.
- 2006ko urtarrilaren 10eko batzarra (euskaltegiak eta Euskara Zerbitzua).- Gaia.- 2005EKO URRIAREN 6AN ESKOLA KONTSEILUAK EBATZIARI EUTSIZ, IKASLE ETORKINEN EUSKARA MAILA SENDOTZEKO KLASE ESKAINTZA EGITEARREN AUKERAK AZTERTZEA.-
- 2006ko urtarrilaren 17ko batzarra (Udal Eskola Kontseilukideak, euskaltegiak, Euskara Zerbitzua).- Gaia.- IKASLE ETORKINEN EUSKARA MAILA SENDOTZEKO KLASE ESKAINTZA DELA-ETA 05/06 IKASTURTERAKO EGITASMOA ERATZEKO OINARRIAK FINKATZEA.

Jairraipenerako, Udal Eskola Kontseiluak hurrengo batzarrak egin zituen 2007 ikasturteari begira:

- 2006ko ekainaren 2ko batzarra (Udal Eskola Kontseilukideak, euskaltegiak, Euskara Zerbitzua).- Gaia: IKASLE ETORKINEN EUSKARA MAILA SENDOTZEKO 2006KO MARTXOTIK EKAINERA EMANDAKO KLASEEN BALORAZIOA.
- 2006ko irailaren 19ko batzarra (Udal Eskola Kontseilua, Euskara Zerbitzua).- Gaia: IRAGAN IKASTURTEAN ETA UDAN IKASLE ETORKINEI ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZU-AREN EMAITZAK AZTERTU ETA 2006-2007 IKASTURTERAKO EGITASMOA ZEHAZTEA (matrikulazioaren bilakaera ere aztertuko da).



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

- 2006ko abenduaren 4ko batzarra (Udal Eskola Kontseilua, Euskara Zerbitzuak eta euskaltegiak).- Gaia: IKASLE ETORKINENTZAKO EUSKARAZKO KLASEAK (izandako esperientziaren hausnarketa egin eta ikasturte honetarako aukerak aztertu).
- 2007ko urtarrilaren 18ko batzarra (Udal Eskola Kontseilukideak, euskaltegiak, Euskara Zerbitzua).- Gaia: IKASLE ETORKINEN EUSKARA MAILA SENDOTZEKO 2006-2007 IKASTURTEAN TALDEAK ERATZEA.
- 2007ko maiatzaren 22ko batzarra (Udal Eskola Kontseilukideak, euskaltegiak, Euskara Zerbitzua).- Gaia: IKASLE ETORKINEN IKASTAROAK (2006-2007 IKASTURTEA) DIRELA ETA IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.
- 2007ko irailaren 20ko batzarra: (Udal Eskola Kontseilua, euskaltegiak eta Euskara Zerbitzu).- Gaia: IRAGAN IKASTURTEAN ETA UDAN IKASLE ETORKINEI ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN EMAITZAK AZTERTU ETA 2007-2008 IKASTURTERAKO EGITASMOA ZEHAZTEA (matrikulazioaren bilakaera ere aztertuko da).
- 2008 irailaren 30eko batzarra (Udal Eskola Kontseilukideak, euskaltegiak, Euskara Zerbitzua).- IRAGAN IKASTURTEAN ETA UDAN IKASLE ETORKINEI ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZU-AREN EMAITZAK AZTERTU ETA 2008-2009 IKASTURTERAKO EGITASMOA ZEHAZTEA (matrikulazioaren bilakaera ere aztertuko da).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

2. HELBURUAK

Gernika-Lumoko Plan Estrategiko berriari (2009-2012 eperako onartu zen 2008ko abenduaren 27an) eta 2009ko Kudeaketa Planari eutsiz, jarraiko helburuei eta ekintzei lotuta gauzatu da egitasmoa:

Helburu estrategikoa

1 - Euskara ondorengoetaratzea

Esparrua

1.a - Irakaskuntza

Neurria

1.a.001 - Gazte etorkinei begirako diagnostikoa egin ostean, horrekin loturiko Plan Berezia eratu behar da eta irakaskuntza esparrurako ekintza aproposak finkatu, ikasle etorkinak euskararen mundura erakartzeko.

Ekintza

1.a.001/001 - Gazte etorkinen diagnostikoaren gaineko Plan Estrategikoaren arabera 2009rako ekintzak finkatu

Neurria


1.a.03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza

1.a.03/2 - Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini (ikasle etorkinei begirako plan bereziak barru)



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Esparrua

1.b - Euskalduntze-alfabetatzea

Neurria

1.b.001 - 16-24 urte bitarteko gazte etorkinei buruzko diagnostikoa egin ostean, euren euskalduntze prozesuari begirako Plan Berezia eratu behar da (euskarara hurrera daitezen moduloak, ekintzak, guneak, erreferenteak,...)

Ekintza

1.b.001/001 - Gazte etorkinak euskarara hurreratzeko ekintza bereziak finkatu 2009ko Kudeaketa Planean, egindako diagnostikoa oinarri

Neurria


1.b.01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza

1.b.01/1 - Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Esparrua	1.c - Familia
Neurria	1.c.001 - Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako udal elkargoak moldaturiko II. inmigrazio planaren ildotik, etorkinak euskara mundura erakartzeko etorkinen familiei eskaintza berezia egiteko bideak jorratu behar dira, gizarteratzearen atal garrantzitsua den hizkuntza integrazioa lortzeko.
Ekintza	
1.c.001/001 - Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako udal elkargoarekin elkarlanean aritu, II. Inmigrazio Planaren ildotik burutuko diren ekintzak direla eta.	


3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobia: Gazterren egitasmoa.

2008an, aurreko esperientziari eutsi diogu, baina gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin diogu: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea. Hauxe izango da oinarria 2009rako Ekintza Plan berezi bat eratzeko.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA

Abian ditugun azpiegitasmoei hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearren, gazte etorkinen munduari buruzko diagnostikoa egiteari ekin zaio. Aztergai 12 urtetik 24 urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2008an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da eta 2009rako berriztatu egingo da hitzarmena Ekintza Planaren garapena helburu.

3.2.- IKASTARO BEREZIAK


2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora:

"...Erabakia:

- 1).- Berbalagun egitasmoaren barruan, etorkinen atala eratu eta indartu, etorkin gazteak ahal den neurrian aintzat hartuta.
- 2).- Ikastaroei dagokienean:
 - Ikasturte osoan antolatu, trimestreka, eta bi talde eratu une bakoitzean:
 - * Oinarrizkoa edo zero maila.
 - * Hasiera maila.
 - * Ordutegia: arraltsaldez (5:00etatik 7:00etara).
 - * Astean bi egunez.
 - Sasoi berezietan ikastaro bereziak eratzea; etorri berriak izan daitezkeen sasoietan batik bat (oporrak,...).
 - Hasiera ikastaroa modu egokian gaindituko lukeena, Berbalaguneko etorkinen atalera pasatzea.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

- Datuak jasotzeko epea: gaurtik aste beterako epean, zentroek datuak ematea (ikasle etorkinen fitxak).

Udal Euskaltegiko ordezkariak dioenez, ikastaroen helburuak, ordu kopuruak eta abarrak, eskoletan zehaztu beharko lirateke. Euskaltegiek eurek ezin dezakete soluzioa eman, konponbidea aurkitzen lagundu baino, kontuan hartuta euskaltegien malgutasun falta eta baliabide urriak...”

Gainera, bilgune berean, Udal Eskola Kontseiluan, 2008ko irailaren 30ean honako erabaki zen gai berberaren inguruan 2008-2009 ikasturterako:


“(...) Erabakia:

- 1).- Ikastaroak abian dauden bitartean, koordinazio batzarrak egingo dira hileroko.
- 2).- Ikastaroak iaz bezala antolatuko dira:
 - Bi maila: oinarritzkoa edo zero maila eta sakontze maila.
 - Noiz: neguan (azaroan hasi eta maiatzera arte) eta udan (uztailean).
 - Ordutegia: neguan arratsaldeko 5:00etatik 7:00etara eta udan goizeko ekitaldia.
 - Modulazioa: neguan ordu eta erdiko bi saio astean eta udan (uztailean) bi orduko saioak egunero.
- 3).- Datuak jasotzeko epea: gaurtik aste beterako epean, zentroek datuak ematea (ikasle etorkinen fitxak). (...)”

Beraz, ikasturtean zehar bi ikastaro antolatuko dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarritzko edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu). Udan ere pareko bi talde eratuko dira eta ikastaro trinkoak eskainiko (50 ordukoak).



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2008” AZPIEGITASMOA


Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako **Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea**, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak. Guk aukera horri eutsi diogu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko.

Beraz, **kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea** adostu dugu. Oso interesgarria guretzat, dinamizatzen dituzten gazteek problematika berezia izateaz gain, eurentako erdiak etorkinak direlako. Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jo dugu eta horregatik bideratu da diru laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratu den “Gazterren 2008-2009” (Errenteria auzoan kokatuta dagoen lokalean aritzen direlako hartu dute izen hau) egitasmoa aurrera ateratzeko (ikus II. Eranskinean horri buruzko balantzea).

“Gazterren 2009” azpiegitasmoaren xede taldea, 2008koari jarraituz, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa izango da, gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituztenentzat. Guztira 45 gaztek hartu du parte eta horietatik 16 izan dira etorkinak.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia.
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategikoaren 2009ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi-egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.

- Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
- Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
- Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
- Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.

- Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):


- Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
- Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
- Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).

- Aita Villasante Udal Euskaltegia eta AEK Euskaltegia (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekin diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

- Parte hartu dute Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura izan da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztu da, behin-betiko onarpena izatearren.
- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2008-2009):**
- Udalarekin sinatu duten hitzarmena bitarteko, gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutu dute egindako proposamenaren arabera (I. eranskina).
- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2008-2009):**
- Kale hezitzaileen zerbitzua bitarteko, etorkinekin aisialdia euskaraz lantzeko egitasmoa (“Gazterren 2008”) burutzeko egitasmoaren ardura izan dute.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

3.5.- BALIABIDEAK

- Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko lanak **HNT I** Teknikariak beteko ditu.
- **Berritzegunearen aldetik**, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneak ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeke daukan mintegia berak zuzenduko du).
- **Euskaltegietako zuzendariak** (2), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izango dutenak, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak berauek.
- **Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak:** Inmigrazio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- **AHIZE-AEK-k garatuko duen Ekintza Planerakoak:**
 - Proiektua bideratuko duen teknikaria (egunero 3 orduz arituko da).
 - Proiektu koordinatzailea: aholkularitza eta udalaren arteko koordinazio-lanak bideratu ditu.

- Diru eta material baliabideak (Euskara Zerbitzua):

- 2009ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoa garatzeko.
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izango du.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

3.5.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Ikastaro bereziak											
Batzarrak Esk. Konts. (jarraipena)											
Batzarrak euskalt / Eusk. Zer (jarraip)											
Metodologia eta programazioa landu (Euskaltegiak / Berritzegunea)											
Ikastaldeak eratu eta ikastaroak eskaini											
Poltsikoko hiztegia berargitaratzea											
Udako taldeak eratu eta ikastaroak eskaini											
Gazterren 2008-2009											
Kale hezitzaileen taldeak dinamizatzea											
Gazteak erakartzeko Ekintza Plana											
Koord / Antol / Hausn											
Tailerrak											
Hitzaldiak / Foroak											
Jai ospakizunak											
Asteburuetako barnet											
Irteerak											
Berbalagun (talde pilotua)											
Inmigrazio Plana eta Gazte Planarekiko uztark/ koordinazioa											
Matrikulazioaren jarraipena											
Korrika 2009 (ekitaldi berezia)											



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren kasuan kasuan, xede taldea, gutxi gora-behera, 230 gazteena da:

- A 12tik 15era artekoak..... 80
- B 16tik 19ra artekoak..... 70
- C 20tik 24ra artekoak..... 70

Ekintza Planaren emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua xede taldearekiko.
- Finkaturiko eragile nagusien partaidetza.
- Partaideen artean euskara gaitasuna lortzen dutenen kopurua.

Ikastaroen azpiegitasmorako xede taldea 70 ikaslekoa da, DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak eta emaitzak baloratzeko adierazle nagusiak:

- Ikastaroetako partaide kopurua.
- Helburua lortu dutenen portzentajea.

“Gazterren 2008” azpiegitasmoarekin lantzen den unibertsoa 9-15 urte bitarteko gaztetxoena da (tarte horretan sartzen diren gazte etorkinak barru, 90 gutxi gora-behera) eta, zehatzago, egitasmoaren xede taldea gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituzten gazteena da. Beraz, xede taldea zenbatekoa den jakitea alde zuzenetik ez da erraza eta errazagoa da unibertso osoa lantzea. Emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua.
- Lantaldeetan izandako baja kopurua.
- Lantaldeetik kanpoan geratu direnak. gizarteratzeko beste bide bat aurkitu dutelako.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

5.- AURREKONTUA

KONTZEPTUAK	KOPURUAK
Ikasturtean zehar dinamizatuko diren taldeak (udal euskaltegia eta AEK euskaltegia) errefortzurako	3.500
Udan dinamizatuko diren bi taldeak (AEK euskaltegia)	4.000
Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen egitasmoari dirulaguntza ("Gazterren 2009" azpiegitasmoa, kale hezitzaileen taldeetako etorkinei begirakoa)	2.500
Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa (Ahize-AEK ahokularitza): - Koordinaziorako teknikaria (9.000 €) - Ekintza Planeko ekintzak burutzeko (6.000 €)	15.000
GUZTIRA	25.000

Gernika-Lumon, 2009ko urtarrilean.

Idoia Fernández Antia
EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA

Bittor Zarrabeitia Bengoa
EUSKARA TEKNIKARIA I



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

I. ERANSKINA

Ahize-ren Diagnostikoa eta 2009ko ekintza plana